

# HERRIA

## KULTUR ERAKUNDE HERRITARREN ALDE

Paulo Agirrebaltzategi

Euskal kultura ezer bada, herritarra da...

Hori ez da inolako slogan merkerik, ez eta edonolako populismo-ri ordaindu beharreko zorrik. Zer da kultura herritarra? Boterearen iturrietatik sortu ez dena eta boteredunen eraginpean kuturto ez dena. Ba dago kultur boterea ere, baina ia beti bestelako botere-barrutiek nahasirik ibiltzen da.

Euskal kultura ez da izan hemengo agintedunen eta boteredunen kultura. Baztertu egin dute. Herri honetako indar ekonomiko eta finantzarioentzat ez da inoiz errentagarri izan euskal kultura edo euskara lantzea eta horiei eragitea: irabazbiderik ez dute eman horiek. Pobreza da, alde horretatik, euskal kultura.

Herri honetan agindu duten agintari politikoek ahantzi eta baztertu egin dituzte euskara eta euskal kultura, horien kontrako burruka eta eraso ezarri ez dutenean. Horiek sortu eta finkatu dituzten kultur erakunde ofizialetan euskarak eta euskal kulturak ez dute lekurik ukan: zokoraturik gelditu dira.

Herri boteregabearen eraginez, lanez eta burrukaz iraun du -bizirik iraun- euskal kulturak. Herritarren eraginez eta lanez sortu dira Herri honetan sortu eta finkatu diren euskal kultur erakunde ia denak; eta herriagandik sortuak dira, gero erakunde ofizialen aldetik nolabaiteko onespena, laguntza edo bebesa izan dutenak ere. Ikastolak, Euskalduntze - Alfabetatze mugimenduak (Gau eskolak, AEK, Euskaltegiak, etab.), Antzerki talde herritarrak, herrietako koruak, abesbatzak eta orfeoak, euskal aldzkariak, EKM, EKT eta UEU, Bertsolarien elkartea, Zinema-topaketak, Liburu-azokak, etab. etab.

Horregatik herritarra izan da, herritarra da euskal kultura. Eta sarritan -gehienetan- antiofizialak izan dira horrek eratu dituen erakundeak. Herritarra da, bestelakorik ez zegoelako ere; eta antiofiziala izan da, horretara behartu dutelako.

Baina euskal kultura herritarra, eta horrek sortu dituen erakundeak, ez dira anti-instituzionalak; horregatik sortu eta finkatu ditu, hain zuzen, bere instituzioak eta erakundeak, zailtasun eragozpen eta burruka handien artean.

Orain jende berriak agintzen du Euskal Herriko erakunde ofizial berrietan eta zahar-berrituetan; *abiaburuan behintzat, eta neurri batez, politika praktikoa ere bai, euskara eta euskal kultura onartzen, babesten dituzte eta indarberitu ere nahi dituzte.*

Baina badirudi, hemengo erakunde ofizialek garai batekoen inertziaz jokatzen dutela, aspalditik lanean diharduten eta bizirik dirauten edo sortu nahi diren euskal kultur erakunde herritarrei buruz. Hauek ukatzea edota hauei erasotzea eta hauen kontrakoak sortzea eta indartzea zen orduko erakunde ofizialen politika; oraingoena, berriz, horiek kontrolperatzea edota baztertzea eta ordezko kultur erakunde eta organo ofizialak sortzea eta indartzea da, batez ere.

Orduko mesfidantza eta urruntasun beraz jokatzen ari dira oraingo hainbat erakunde ofizial edo herrietako lagun, euskal kultur erakunde herritarrei buruz. "Erakunde ofizialen bidea aukeratu badut edota horietan lana egiten badut, ez daukat erakunde herritarrak babesterik eta bultzatzerik": horixe da hainbaten arrazoi bidea. Betikotan gaude horrela: Euskal kultur erakunde ofizialak ala herritarrak.

Herri honen hizkuntza eta kultura onartu, babestu eta indartuko dituen eta euskararen eta euskal kulturaren berreskurapena eta normalakuntza globalak bideratuko dituen euskal erakunde ofizialen zain egon gara. Horien alde burukatu dira, hain zuzen, euskal kultur erakunde herritarrak. Bide horretatik jokatzen eta eginkizun hori betetzen duten neurrian, behar-beharrezkoak ditugu erakunde ofizialak euskal kulturaren.

Kontuan eduki behar da, hala ere, dialektoak izan behar duela beti erakunde ofizialen eta erakunde herritarren arteko harremanan: areago kulturaren alorrean. Euskal kulturako erakunde ofizialen politikari buruz. Beti izan behar dute kritikoak, ordea. Baina harreman dialektikoa, dialektikaren bi alderdiek elkar onartzetik eta bakoitzaren lekua eta eginkizuna onartzetik eta ezagutzetik abiatzen da.

Euskal kulturak herri-dinamika indartsua izan du eta du orain. Horixe eutsi eta hori bizkortu beharra dauka hain zuzen; besteren artean, euskal erakunde ofizialak oso makalak dituelako ere bai. Euskal kulturaren berreskurapena eta normalakuntza Herri osoaren mobilizaziotik, eratzetik eta indartzetik etorriko da batez ere: horien koordinaziotik batez ere.

Horregatik ezin daiteke onartu euskal erakunde ofizialetatik euskal kultur mugimendua eta erakundeak makaldu nahia: kontrolperatuz, baztertuz nahiz "ordezko" erakunde eta organo "ofizialak" sortuz eta indartuz. Erakunde herritarrak publiko -herriko eta autonomo, ez ofizial- bihurtzean dago seguruenik bidea.